


Arimen osalaria



Arimen maisua

Jatorrizko izenburua: *Le maîtres des âmes*

Egilea: Irène Némirovsky

Itzultzailea: Mikel Garmendia

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Alberdania

KARLOS DEL OLMO

Gutxitan gertatzen da eskuizkribu batek editore bat irazekitzea, zenbateraino eta liburua behingo-behingoan argitaratzea erabakitzeraino. Halaxe jazo zen 1929an Parisen Bernard Grasset argitaratzaileak *David Golder* eleberria bidalketa anonimo batez jaso zuenean. Grassetek iragarki bat plazaratu zuen, egile misteriotsuari bere burua agertzeko deia egiten ziona. Egun batzuen buruan, han agertu zen Irène Némirovsky gazte bat, bera idazkiaren egilea zela aldarrika. Hogeita sei urte zituen orduan idazleak, eta hamar urte arinagotik besterik ez zen Frantzian bizi, Urriko Iraultzaren ondorioz alde egindako familiak ekarrita. Guraso mundano batzuen artapenik ezaren ondorioz, literaturan aurkitu zuen babeslekua eta, hala, hamalau urterekin idazteari lotu zitzaion. Naziek Frantzia okupatu zutenean, Irène eta senarra —bera ere jaiotzez errusiarra— euren lanbideetan jarduteko ezgaitu zituzten, atzerritarrak eta juduak izatearren. Katolizismora konbertitua bazen ere, 1942an Auschwitzera deportatu eta han hil zuten idazlea, 39 urte zituela.

Gurasook alabak salbu utzi zituzten eta horri esker apurka-apurka joan dira argitaratuz beste lan batzuk idazlea hil ostean ere. Arrakasta handia lortu dute haren lanek, eta horren frogagarri, 2004an *Suite Frantziarra* lanak Renaudot saria eskuratu izana.

Mikel Garmendiak euskaratuta heldu zaigun *Arimen maisua* lana duela gutxi heldu zen plazara lehen biderrez Frantzian, eta berantze horren ondorioz, eleberritari hasi bidez zeroan *Les échelles du Levant* izenburua aldatu behar izan diote, liburu moduan arinago Amin Maalouf-en lan izenkidea plazaratu zutelako, nahiz eta Irènerena 1939an *Gringoire* aldizkarian atalka argitaratuta zegoen. Zergatik *Sortaldeko eskalak?* Emigranteak Frantziara joaten zirelako Krimean eta Levanteko beste portu batzuetan eskala egiten zuten itsasontzietan. Txatalka kaleratu izanak argi egiten du eleberririk duen egitura berezian, foiletoi frantses klasikoaren itxura ageri-agerikoan. Kapitulu bakoitzak trama zati bat garatzen du, beregaina balitz bezala. Oso trebe darabiltza efektismo halako bat, elipsi baliabideak eta kontaera gailurrak. Bestalde, zenbait pasartetako elkarrizketa indartsuek zuzenean dakarte gomutara antzerkia.

Eleberria erraz identifikatzen da Balzacen edo Zolaren eleberrien ildoko idazlanekin; dena dela, ez du ezertatik ere falta Dostoievskiren edo Txejoven ukitu eslaviarra, batez ere garai hartan literatur errusiarrean halako boladan zeuden gaien tratamenduari gagozkiola: honako honetan, gizarte harreragilean ondo hartua ez den mediku emigrante batek aberasbidea jadesteko zailtasunak direla-eta dirua lortzearren edozer egiteko prest egotearen ondorioz hartutako erabakiek harengan eta emazte judu urre-bihotzarengan eta semearengan dituzten ondorio lazarriak. Baina eleberritari darion usain dezimononikoa gorabehera, tramak, azkenean, irakurlea bestela baitakoan amarratzen du. Arazo gehienen erroa dirurik ezean dagoela pentsatzen duen aita

adinean aurreratua bihurturiko noizbaiteko gazte idealistak bera gaitzesten duen seme idealistari buruz duen iritziak ezin hobeto laburtzen du protagonistaren filosofia: "(Semea) Itzuliko da —iragarri zuen Dariok—. Herentziarengatik".

Eleberriak, dena dela, bestelako osagairik ere badu, *roman à clé* den neurrian, pertsonaia ludopataren gaineko kontakizuna Irèneren editorearen inguruan haren familiak eta akziodunek hura lege ezgaitzeko eraturako amaraunaren irudia da.

Noiz idatzia den ikusita, batek baino gehiagok pentsa lezake horrelako nobela bat gaur egun zaharkin hutsa dela, egilearen inguruan eraturiko legendatik plazaratu duela euskal editoreak ere. Baina, birritan pentsatuz gero, emigranteekin munduan zer gertatzen ari den ikusirik, ezinago egoki dator argitalpen hau: protagonista *meteco* bat da (atzerritarra, apatrida, judua...) Frantzian. Bestalde, Asfar deiturak arabieraz bidaiaria esan gura du, eta, hori gutxi balitz, *Ahasverus* zuen lonbrea Judu Herratuak.

Euskal itzulpengintzan eskarmentu handi-handikoa den Mikel Garmendiak paraturiko itzulpenari dagokionez, itzulpengintzaren itxurazko ezinezkotasuna beste behin arrakastaz gainditu duela nabarmendu behar. Txikikeria moduan gaineratu behar genuke egilearen deiturako tiletarekin solapan gertaturiko dantza, baina tantatxo ñimiño bat baino ez da goitasun zabaleko lan honetan.

Beste ama hizkuntza bat duten idazleen kausa aldarrikatzeko bide ezinago egokia dugu Irèneren kasua, arrakasta errusieraz barik, frantsesez lortu duelako. Protagonistari esanarazten dion moduan, "zuen kultura nahi nuen nik, zuen morala, zuen bertuteak, ni baino nobleagoa den guztiori, nitaz bestelakoa (...)". Gure kulturgintzan zer argitaratzen den ikusita, geure buruari egin geniezaioke galde ea euskal argitaratzaileak Némirovsky plazaratzen ausartu zen editorea bezain azarriak ote diren, euskaratzen diren lanen pareko jatorrizko idazkirik publikatzera azartuko lirakeen, batez ere dena delako idazle anonimo horrek euskara bigarren kultur hizkuntzatzat izanez gero. Azken buruan, "Inork ezin dio ihes egin patuari".